

KURKULUXETAN ALDIZKARIA

AURKIBIDEA:

- TOPAKETAK

-ANDREA, FITXAJE BERRIA

- DRAMATIZAZIOA
IKASTETXEETAN

- ANTZERKI UDALEKUAK

- GORA ZAPARRADA

- HITZ ETA PITZ

-GURE ANTZEZLANAK

- GAZTEOLAREN ESKAINTZA

MUSIKA ETA ANTZERKI TOPAKETAK

Apirilean zehar Bilboko Kafe Antzokiko taulatik hainbat haur eta gazte pasatu dira haien musika zaletasuna erakutsiz. Alde batetik, Haur Musika Topaketetan, Arrankudiaga, Arrigorriaga, Gernika eta hainbat tokitatik etorritako hurrek haien musikarekin gozatzeko aukera eman ziguten. Bestetik Gazte Musika Topaketetan talde berriak etorri zitzaizkigun



The Jeloskor's Arratia aldetik, Otxarkoagatik, Deustuko, Patxadaz izeneko taldea, Errekaldeko Akerjenbe Taldea, etabar.

Topaketa hauen ezaugarri inportanteenak bi izan dira: alde batetik euskararen inguruan batu izan direla haur eta gazteak eta bestetik musikaren inguruan haiek, haien gurasoak eta haien irakasleak ere hurbildu zaizkigula Kafe Antzokira. Argi dagoena da harrobia badaoela eta abestiak esaten duen bezala "kantatzen duen herria ez da inoiz hilgo".



MAIATZAK 2
"Kantaurko piratak"
ARTXANDAPE IKASTETXEA
"Ai amaxul"
LA SALLE IKASTETXEA

MAIATZAK 17
"Munduaren amaiera? Bai zera!"
LEMOA IKASTETXEA
"Zelako ajea" eta "Gora beldurra"
KUCUKE ANTZERKI ESKOLA

MAIATZAK 3
"Fat West"
KURKULAGA IKASTETXEA
"6.maila bukatu dugu"
ZARBARAN IKASTETXEA

MAIATZAK 23
"Oz-ko magoa" eta "Peter Pan"
KURKULUXETAN ANTZERKI ESKOLA
"Kasle berria"
KURKULAGA IKASTETXEA

MAIATZAK 9
"Harapatu zaitut!"
LA SALLE IKASTETXEA
"Shrek"
ARTXANDAPE IKASTETXEA

MAIATZAK 24
"Eguzkia baino ahalsuagoa"
INTXURU IKASTOLA
"Italian Chic Hotela"
KURKULUXETAN ANTZERKI ESKOLA

MAIATZAK 16
"Gezurkiak"
KURKULAGA IKASTETXEA
"Peter Pan"
LA SALLE IKASTETXEA

MAIATZAK 30
"Saguen asanblada"
INTXURU IKASTOLA
"Iontxu eta Tontxu detektibeak"
KURKULAGA IKASTETXEA



ANDREA, KURKULUXETAN-EKO FITXAJE BERRIA

Andrea Corrales Sánchez, Haur Hezkuntzako Irakasle-eskolako I.

maila ikasten ari den 18 urteko neska Kurkuluxetan-eko fitxaje berria da, Zelan sartu zinen antzerki munduan? Betidanik gustuko izan dut antzerkia eta batxilergoko ereduak aukeratzeko, birritan pentsatu gabe, arte eszenikoe-tako modalitatea hautatu nuen. Ikastolan 5. mailan antzerkigintza landu genuenean jakin-mina eta antzerkiarenganako maitasuna piztu zitzaizkidan. Asteburu batean taberna batean entsegu egiten geundenean Kurkuluxetan-eko kide bi hurbildu zitzaizkigun musika gazte topaketetan parte hartzeko eskaintza egitera eta pozez eman genien baietza noski. Bati begira bere aurpegia ezaguna egin zitzaidan eta ikastolan nire antzerkigintzako irakasle izandakoak, haiekin antzerkiaren saltsan murgiltzea proposatu zidan, ilusioz gainezka baietza eman nien ere bai.



Karramarroi pertsonaia lantzen ari zara, zelan da pertsonaia "ospetsu bat" egitea?

Kuriosoa da umetan ezagututako pertsonaia baten azalean ikustea nire burua, gainera Karramarroi naizenetik lagun askok ordezkatu dute nire izena "Karra" ezizenaren ordezkari. Ez dut presio gehiegirik sentitzen, kideek xamurtasunez eta pazientzia handiz tratatzen nautelako. Presioa baino, konpromiso hitzak definitzen du hobeto nire sentsazioa. Entseguetan asko disfrutatu egiten dut. Lehendik beste pertsona batek forma eman dion pertsonaia baten lekukoa hartzea apur bat zaila da baina laguntza daukat beti zalantzak argitzeko eta hobetzeko. Antzerkia beste perspektiba batetik ikusten gaiza berri asko ikasten ari naiz eta oso aberasgarria derizot.

Musika topaketetan parte hartu duzu zure "Patxadaz" taldearekin, zelan izan da esperientzia? Oso esperientzia polita izan da guretzat. Kafe Antzokian jotzeak berez errespetu apur bat ematen du, batez ere gaztetxeetan jotzen ibili garelako orain arte. Baina aukera aprobetxatu dugu. Batez ere oroitzapen ona daramagu, sentsazio oso onarekin amaitu genuen eta arratsalde itzela pasatu genuen kideen eta publikoaren berotasunean.

DRAMATIZAZIOA IKASTETXEETAN:

CERVANTES IKASTETXEA

Aurten Kafe Antzokiko musika topaketetan, musikarien artean, gonbidatu berezi batzuk euki ditugu. Bilboko Cervantes eskolako euskal dantzariak. Cervantes eskolako 1. eta 2. mailako ikasleak buru belarri ibili dira kurtso hasieratik euskal dantzak praktikatzen. Prestatu zuten dantzen artean "Txulalai" dago, dantzarik gogokoena dantzari txiki hauen artean, pilo bat gustatzen zaie, ipurdia mugitu behar delako. Euskal dantzak publiko aurrean aurkezteko eguna heldu zen, apirilaren 12a izan zen Bilboko Kafe antzokian. Abarkak eta zapiak janzen zituzten bitartean oso urduri zeuden, ez zuten txarto egin nahi hain beste praktikatu ondoren. Azkenean eszenatokia zapaldu eta biribilketaren lehenengo notak entzuk zituztenean, urduritasun osoa alde egin zuen Kafe Antzokiko atetik eta oso ondo dantzatu zuten. Orain kurtso amaierarako dantza berri batzuk prestatuko dituzte

eskolan aurkez-



DERIOKO

KUKUKE ANTZERKI ESKOLA

Haur Antzerki Topaketak bueltan daude eta Derioko txikien taldea jo eta su daude aurkeztuko duten antzezlan prestatzen. Gabonak arte ikasitako gutzia baliatuz beldurrezko antzezlan bat sortu dute: GORA BELDURRA!. Haien ustez, jolas dramatikoak erraza-goak eta dibertigarriagoak dira baina oraingo entseguetan ere ondo pasatzen dute. Zailena ahots tonua altxatzea eta ondo ahoskatzea izan da. Errazena koreografiak ikastea, haiek asmatutakoak izan direlako. Aurten entseguak grabatu dituzte gero ikusteko, akatsak zuzentzeko eta hobekuntzak egiteko. Dena prest daukate topaketetarako.

ANTZERKI UDALEKUAK

Antzerkia oso aproposa da gaztetxoek euskaraz komunikatzeko, sentimenduak eta nahi duten gutzia adierazteko, eta mundu horrek eskaintzen digun aukera-sorta oparoa erakusten diegu. Euskaraz eta ederto pasatuz. Ondorengo ekintzak jartzen dira praktikan udaleku honetan: Antzez-jolasak, Mozorratze eta makillajea, Txotxongilo antzezlanak, Lip dub-a eta gidoiak sortzea. Horrez gain, jolasak eta eskulanak ere egingo dituzte, ezin hobeto pasa dezaten.

Informazio gehiago nahi izanez gero, jo gure bulego-
ra (Done Bikendi, 2. 4.solairua. 48001 Bilbo), idatzi bulegoa@gazteola.com helbidera edo telefono honetara deitu: 944 237 591.



"Zaparrada" haur konpartsa-
ren ekimenak:

MAIATZAK 20
12:00

ZAPARRADA KALEJIRA BILBOKO
ALDE ZAHARRETIK

BATUKADA, XUNE, PELLLOT, ANE MONNA, OSKOLA,
KARRAMARROI ETA ZAPARRAKIDE GUZTIAK...

ABUZTUAK 21
17:30

ASTE NAGUSIKO ZAPARRADA TXUPINA
ALGARA PLAZATIK

MARIJAIA ERE GUREKIN ETORRIKO DA.
EKARRI KAMISETA!!

ASTE NAGUSIKO EGITARUA

KALEJIRA ETA TXUPINA - ZIRTAKA ANTZERKI TALDEA "ZU ETA NI SUDURLUZE BI" -
DISKO DANTZA MUGI ZAITEZ TALDEAREKIN - BEHINOLA IPUIN KONTALARIK -
SUKALDARITZA TAILERRA - BAZKARIA ETA ERROMERIA - TXOKOLATADA...

info gehiago: www.zaparrada.eus

HITZ ETA PITZ: IPUINTXOA

Goizero goizero, zortzietan esnagailuak —txirrin!! txirrin!!— jotzen du. Ohetik altxatu, gosalduta eta korrika eskolara doa Aingeru. Batzuetan lagunekin batera heltzen da, baina oso-oso-oso gutxitan, ohikoena berandu heltzea izaten da. Egunean zehar —txirrin!!!txirrin!!!— entzuten den aldiro, ikasgaiak aldatzen dira. Baina gaurkoan Aingeruri ez dio denborarik eman bart gauean amestu duena gogoratzeko, etengabe irakasleak matematika, musika, ingurunea, hizkuntza eta ingelesa!! Horregatik, asko gustatzen zaio goizetan ohean ahal duen gehien egotea, izaren eta mantaren azpian goxo-goxo. Gauean amestutakoa gogoratzen duelako. Munduko gauzarik ederrena dela uste du Aingeruk bart gaueko ametsak gogoratzea. Beti dabil ingurukoei gaza bera galdetzen: —Amona, bart zer amestu duzu?— edo —Autobus gidari, bart gauean zer amestu duzu?—. Helduek sarritan: —Aspaldiko, zer moduz?— galdetzen dute. Baina erantzunak aspeeergerriak dira, beti erantzun bera: —Ondo!—. Ametsak berriz, inoiz ere ez dira errepikatzen, beti berri eta beti zirrararri, abenturetan edo arazoetan sartzeko aukera asko dago beti. Nagusiek batzuetan, aurpegi goibela dutenean, Aingeruk zer gertatzen zaien ulertzeko zera galdetzen die: —Bart gauean zer amestu duzu?—Baina askok ezer amestu ez dutela erantzuten diote. Hori esaten diotenean, Aingeruk bart amestutakoa kontatzen die, ez daitezen larritu, berak ametsa oparitzen dielako. Hori esanda, jarraian algarra eta irribarrea irudikatzen zaie triste zeudenei ezpainetan. Badazpadan, Aingeruk amets asko ezagutu nahi ditu, beldur ematen dielako noizbait, behin bada ere, gau batean ametsik ez izatea.

Eta zuk, bart gauean zein amets izan duzu? bidali zure ametsa Aingeruri gutun batean.

IRAKURKETA ERRAZA, AMAIA UDALEKUETAN

Irakurketa Erraza egitasmoak, urteak daramatza gurean, irakurketa klubak antolatzen, orain arte nagusiak gaztelerazkoak izan badira ere, euskarazko Irakurketa Erraza zabalduz doa, titulu berrien publikazioari esker. Gaztelerazko egitasmoak, urteak daramatza martxan, horra hor erabilgarria izan daitekeen lotura: <http://lecturafacileuskadi.net> . *Amaia udalekuetan* nobelatxoa Onintze Goitzek argitaraturiko lehen liburua da. Irakurketa Erraza formatuan idatzia dago, hau da, irakurketarekin edota ulermenarekin zailtasunak dituztenei testuak eskuragarri jartzeko formatua da. *Amaia udalekuetan* liburua 8-10 urte bitarteko gaztetxoentzako prestatua dago. Gaumin argitaletxeak 2015 urtean argitaratu du, gainera Mikel Mendibil Aizuaren ilustrazioek bidelagun atsegina sortzen dute. Liburuaren argudioa honakoa da: Amaia gorra da jaiotzez eta bera dugu protagonista. Lehen Hezkuntza bukatzeaz dagoen uda horretan, gurasoek ez diote udalekuetara joaten uzten, baina lagunei esker inoizko abenturarik zoragarriena bizitzeko aukera izango du.



INFORMAZIOA EDO KONTRATAZIOA:

Kurkuluxetan Elkarte
Done Bikendi, 2 - 4.
48001 BILBO - 662472746
www.kurkuluxetan.org
umegunea@gmail.com

GURE ANTZEZLANAK

"BERNOLA" IPUIK KONTALARIK AURKEZTEN DUTE:



BERRIA

gure betiko ipuinak

Kontratazioa: umegunea@gmail.com - Tel: 662 472 746
www.kurkuluxetan.org

"BERNOLA" IPUIK KONTALARIK AURKEZTEN DUTE:



AMONAREN SUTONDOKO IPUINAK

Kontratazioa: umegunea@gmail.com - Tel: 662 472 746
www.kurkuluxetan.org

Ane Monna, Oskola eta Karramarroi
Antzerki Taldea



PEPITAREN LIBURU MAGIKOA!

Kontratazioa: umegunea@zenbatgara.org - Tel: 662 472 746
www.kurkuluxetan.org

Zirtaka antzerki taldea

URTAROAK
VIVALDIREN
BEGIETATIK
ANTZERKI BELTZA



Kontratazioa: umegunea@gmail.com - Tel: 662 472 746
www.kurkuluxetan.org

Zirtaka antzerki taldeak aurkezten du:


BERRIA

ZU ETA NI
SUDURLUZE BI



Kontratazioa: umegunea@gmail.com - Tel: 662 472 746
www.kurkuluxetan.org

Zirtaka Antzerki Taldeak aurkezten du



Maddi Pirata
'etorri pirataz mozorroturirik!'

Kontratazioa: umegunea@gmail.com - Tel: 662 472 746
www.kurkuluxetan.org

GAZTEOLAREN ESKAINTZA: CAMPUSAK, UDALEKUAK ETA TAILERRAK

Aurtengo udan ere, Gazteolaren eskutik, hainbat campus, udaleku eta tailer eskainiko ditugu, umeek eta gazteek uda euskaraz disfruta dezaten. Gazteola Zenbat Gara elkartearen eta Gabriel Aresti euskaltegiaren ekimena da.

Campusak kirol federazio eta elkarteekin egindako lankidetzeta-hitzarmenei esker sortu dira. 2012an Danok Bat futbol klubarekin batera antolatutako futbol campus arrakastatsuari gehitu zitzaion iaz futbol teknifikazio campusa, eta uda honetan ere, horiez gain, saskibaloia campusa, kirol campusa umeentzat, dantza modernoko campusa, sukaldaritza campusa eta bertso udalekuak eskainiko ditugu. Horiek antolatzeko bidaide izan ditugu Bizkaiko Eusko Pilota Federakuntza, Bizkaiko Saskibaloia Federazioa eta Bertsozale Elkarteak.

Horiez gain, gaikako udalekuak eta tailerrak izango ditugu Bilbon uda osoan: gazteentzat, ikus-entzunezkoen tailerra, musika sorkuntza eta DJ tailerra eta karakterizazio tailerra, eta umeentzat, antzerki udalekuak, marrazketa udalekuak eta "Euskaraz jolasean" udalekuak, ahaztu gabe 16 urtetik gorako gazteentzako euskara barnetegiak Bilbon zein Bakaikun (Nafarroa), gazteentzako ikastaro trinkoak Bilbon, umeentzako barnetegiak Bilbon eta euskara akademia ume eta gazteentzat.